

I. XEDAPEN OROKORRAK**ESTATUKO BURUZAGITZA**

- 501** *1/2020 Errege Lege Dekretua, urtarrilaren 14koa, Gizarte Segurantzako sistemaren pentsio eta prestazio publikoak handitzea eta mantentzea ezartzen duena.*

I

Zerga, katastro eta gizarte-segurantzako zenbait neurri onartzen dituen abenduaren 27ko 18/2019 Errege Lege Dekretuaren hitzaurreak agerian uzten zuenez, Gobernuak asmoa zuen Europako Batzordeari Espainiako Erresumaren 2020ko Aurrekontu Planaren barruan jakinarazitako konpromisoa betetzeko, hau da, pentsiodunen erosteko ahalmenari eustea bermatzeko konpromisoa betetzeko, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera pentsioak % 0,9ko eguneratuta. Hala ere, jarduneko Gobernuak jarduketak mugatuta dituenek –hala ezartzen baita Gobernuari buruzko azaroaren 27ko 50/1997 Legearen 21. artikuluan–, ezinbestekoa izan zen neurri horren aplikazioa atzeratzea gobernu berri bat eratu arte, zeina proposamen- eta arau-ahalmena osorik erabiltzeko moduan egongo zen, aipatutako legearen 22. artikuluekin bat etorritik.

2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, errege lege-dekretu honek ezartzen du ehuneko 0,9 handituko direla Gizarte Segurantzako sistemaren pentsioak eta beste prestazio batzuk –ordaindutakoaren araberrakoa direnak eta ez direnak–, bai eta Estatuko Klase Pasiboenak ere, eta ez da aplikatzekoa izango urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 58. artikuluan xedatutakoa, ez eta apirilaren 30eko 670/1987 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Estatuko Klase Pasiboen Legearen testu bateginaren 27. artikulua ere. Aurreikuspen horren osagarri gisa, errege lege-dekretuak eranskin bat du, eta bertan jasotzen dira 2020ko gutxieneko pentsioen eta beste pentsio eta prestazio publikoen zenbatekoak, bai eta klase pasiboen pentsioak arautzen dituzten hartzekoak eta gerrako pentsio bereziei aplikatu beharreko zenbatekoak ere.

Bestalde, pentsioen erosteko ahalmenari eusteko bermea ere jasotzen da, 2020rako inflazioa aurreikusitako ehuneko 0,9ko igoera baino handiagoa bada.

II

Errege lege-dekretu honek bi artikulua, xedapen gehigarri bat, xedapen iragankor bat eta hiru azken xedapen ditu.

Lehenengo artikulua pentsioak eta beste prestazio publiko batzuk zehazteari eta handitzeari buruzkoa da, eta, oro har, ehuneko 0,9ko igoera ezartzen du, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. Era berean, igoera horrek eragiten ez dien pentsio publikoak zehazten dira. Bestalde, bigarren artikulua 2020an erosahalmenari eusteko bermea ezartzen du, baldin eta 2019ko abendutik 2020ko azarora bitartean KPIaren urte arteko ehuneko igoeren batez besteko balioa ehuneko 0,9 baino handiagoa bada.

Xedapen gehigarri bakarrak agintzen du pentsioak errege lege-dekretu honetako 1. artikuluan ezartzen den bezala handituko direla, eta ez dela aplikatuko Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginetako 58. artikuluan eta Estatuko Klase Pasiboen Legearen testu bateginetako 27. artikuluan ezartzen dena.

Xedapen iragankorrek errege lege-dekretu honetan aurreikusitako xedapenen ondorio ekonomikoak 2020ko urtarrilaren 1era atzeratzen ditu.

Azken xedapenak, hurrenez hurren, hauek ezartzeko dira: eskumen-titulua, arauak emateko gaikuntza eta indarrean sartzea.

Azkenik, eranskinak 2020an aplikatu beharreko pentsio eta prestazio publikoen zenbatekoak eta diru-sarreraren mugak ezartzen ditu.

III

Errege lege-dekretua, Konstituzioaren arabera, tresna zilegia da, baina, horretarako, Konstituzio Auzitegiak Konstituzioaren 86. artikulua interpretatzean behin eta berriro eskatu bezala (6/1983 epaia, otsailaren 4koa, 5. oinarria; 11/2002 epaia, urtarrilaren 17koa, 4. oinarria; 137/2003 epaia, uztailaren 3koa, 3. oinarria, eta 189/2005 epaia, uztailaren 7koa, 3. oinarria; 68/2007 epaia, 10. oinarria, eta 137/2011 epaia, 7. oinarria), presazko legegintza justifikatzen duen xedea egoera jakin batean laguntzea izan behar da, Gobernuaren helburuen barruan laguntzea betiere, aurreikusten zailak diren arrazoiengatik araudia berehala ematea eskatzen duen egoera batean –esan nahi baita ohiko bidea erabilia edo legeen izapidetze parlamentarioarako presazko prozedura erabilia beharko litzatekeena baino epe laburragoan–.

Egungo aurrekontu-luzapenaren egoerak eta abenduaren 27ko 18/2019 Errege Lege Dekretuan –zeinaren bidez onartzen diren tributuen, katastroaren eta gizarte-segurantzaren arloko zenbait neurri– pentsioen handitzea atzeratzeko jasotako erabakiak justifikatzen dute arau hau onartzea, hain zuzen, pentsiodunen kolektiboari, erosteko ahalmenaren galerari dagokionez, pentsioen handitzea 2020rako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legea onartu arte ez gauzatzeak eragingo liokeen kaltea saihesteko. Beraz, badaude, gure konstituzio-testuaren arabera, errege lege-dekretu batek behar dituen aparteko eta presazko beharrezanaren inguruabarrak.

IV

Azpitarratzekoa da errege lege-dekretu honek betetzen dituela Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 2ko 39/2015 Legearen 129. artikuluan jasotzen diren erregulazio onaren printzipioak. Hala, arauak errespetatzen ditu premiaren, eraginkortasunaren eta proportzionaltasunaren printzipioak, hala lortzen baita erdietsi nahi den helburua, hau da, oro har, pentsioen eta beste prestazio publiko batzuen balioa ehuneko 0,9 handitzea, eta ez ditu ez interesdunen eskubideak murrizten ez betebeharrak ezartzen.

Era berean, ekimena koherentea da Estatuko zein Europar Batasuneko gainerako ordenamendu juridikoarekin, helburuak argi eta garbi zehaztuta daude, eta ez du administrazio-karga berririk ezartzen, hala segurtasun juridikoaren, gardentasunaren eta efizientziaren printzipioak betez.

Horrenbestez, Gizarteratze, Gizarte Segurantza eta Migrazio ministroaren proposamenez eta Ministroen Kontseiluak 2020ko urtarrilaren 14an gaia eztabaidatu ondoren, honako hau xedatzen dut:

XEDATZEN DUT:

1. artikulua. *Pentsio publikoak eta beste prestazio publiko batzuk zehazteari eta handitzeari buruzko arauak.*

1. Estatuko 2020ko Aurrekontu Orokorren Legea onartu arte, 2020an indarrean jarraituko dute Estatuko 2018ko Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legearen IV. tituluak eta berarekin bat datozen xedapen gehigarriek, bai eta lege hori garatzen duten xedapenek ere, honako aldaketa eta salbuespen hauek eginik:

2. Gizarte Segurantzaren sistemaren bidez ordaintzen diren ordaindutakoaren araberrako pentsioak, bai eta Estatuko Klase Pasiboenak ere, ehuneko 0,9 igoko dira, betiere kontuan hartuz hurrengo paragrafoetan jasotako salbuespenak eta berezitasunak, eta 6. paragrafoan agertzen diren gerrako legeria bereziaren babesean aitortutako pentsioen berme-zenbatekoak errespetatuz.

Estatuko Klase Pasiboen Araubideko pentsioak eta gerra-pentsio bereziak behin-behinean zehazteko aplikatzen diren baliabideen zenbatekoak ere aurreko paragrafoan ezartzen den ehunekoaren arabera handituko dira.

Honako hauek izango dira pentsio publikoen 2020ko gehieneko zenbatekoak: 2.683,34 euro hilean edo 37.566,76 euro urtean.

3. 2020an, ehuneko 0,9 igoko dira honako pentsio hauen gutxieneko zenbatekoak, erreferentziatzen 2019ko pentsioen gutxieneko zenbatekoak hartuta: Gizarte Segurantzako sistemaren eta Klase Pasiboen gutxieneko pentsioak; ordaindutakoaren arabera ez diren pentsioak eta jada iraungita dagoen Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruaren pentsioak, batera gertatzen ez direnean; Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruaren pentsioak eta Gizarte Segurantzako sistemaren araubide bateko alargun-pentsioak, batera gertatzen direnean; Gizarte Segurantzak nork bere kargura gutxienez hemezortzi urte eta ehuneko 65 desgaitasuna dituen semea edo alaba edukitzeagatik ematen dituen prestazioak; mugikortasun-sorospena eta garraio-gastuen konpentsazioa.

Emakumeen aurkako indarkeriak sortutako umezurtz-prestazioek –urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 224.1 artikulua hiruugarren letrakadan aurreikusita daude–, 2019an aitortutakoak badira, urte horretarako lanbide arteko gutxieneko soldatarako onartzen den igoera bera izango dute 2020an, eta ez da aplikatuko aurreko letrakadan aurreikusitako handitzea.

4. Gutxienekoetara heltzeko osagarriak eta Gizarte Segurantzak norberaren kargurako seme edo alabagatik edo adingabeagatik eta familia ugariarengatik ematen dituen prestazioak onartzeko gehieneko eduki daitezkeen diru-sarreraren zenbatekoa ehuneko 0,9 handitu da, 2019an indarrean zegoen zenbatekoa erreferentziatzen hartuta.

5. Honako prestazio hauek ehuneko 0,9 handituko dira, erreferentziatzen 2019ko zenbateko eguneratuak hartuta: Indar Armatuaren Gizarte Segurantzako Araubide Bereziko baliaezintasun handiko prestazio ekonomikoak; martxoaren 18ko 3/2005 Legearen babespean onartzen diren prestazio ekonomikoak (lege horrek prestazio bat aitortzen die adingabeak zirenean Gerra Zibilaren ondorioz atzerrira lekualdatu behar izan zuten eta bizitzaren zati handiena lurralde nazionaletik kanpo eman zuten espainiar jatorriko herritarrei); giza immunoeskasiaren birusa (GIB) duten pertsonen onartzen zaizkien giza laguntzen hileko zenbatekoak (laguntza horiek maiatzaren 28ko 9/1993 Errege Lege Dekretuak ezartzen ditu 2.1 artikuluko b), c) eta d) letretan; dekretu horrek laguntzak aitortzen dizkie osasun-sistema publikoko jarduketan ondorioz giza immunoeskasiaren birusa duten pertsonen).

6. Honako pentsio hauen zenbatekoa, ordaintzen hasi diren eguna gorabehera, ezin da izan Gizarte Segurantzako sistemaren 65 urtetik gorakoaren alargun-pentsioen gutxieneko zenbatekoa baino txikiagoa: Gerra zibilaren ondorioz hildakoen alargunei eta gainerako senideei pentsioak, laguntza mediko-farmazeutikoa eta gizarte-laguntza aitortzeari buruzko irailaren 18ko 5/1979 Legearen babesean senitartekoei emandako pentsioak; errepublikarren eremukorokalarari ohi elbarrien pentsioei buruzko ekainaren 26ko 35/1980 Legearen babesean senitartekoei emandako pentsioak (funtzionarioak ez diren langileek ezgaituak ez diren umezurtzen alde sortzen dituzten pentsioak izan ezik); Gerrako elbarri zibilei buruzko martxoaren 29ko 6/1982 Legearen babesean emandakoak; eta urriaren 22ko 37/1984 Legeak –Errepublikaren aldeko indar armatuetan, Errepublikako ordena publikoko indarretan eta Karabinero Kidegoetan aritutakoen eskubideak eta haiek emandako zerbitzuak onartzen dituenak– II. tituluan alarguentzat ezartzen dituen pentsioak.

Halaber, urriaren 22ko 37/1984 Legeak II. tituluan ezartzen duenarekin bat etorriz kausatzaileen alde onartzen diren pentsioen zenbatekoa ezin izango da izan Gizarte Segurantzako sistemako ezkontidearen ardura duten 65 urtetik gorakoaren erretiro-pentsioen gutxieneko zenbatekoa baino gutxiago, pentsioa ordaintzen hasi den eguna gorabehera.

7. 1989rako Estatuko Aurrekontu Orokorren abenduaren 28ko 37/1988 Legearen 42. artikuluan zehaztutako aurreikuspen-araubideen edo -sistemen kontura ordaintzen diren pentsioak, artikulua honen aurreko paragrafoetan adierazita ez daudenak, haien araudiak xedatutakoaren arabera, dagokien neurrian handituko dira 2019ko abenduaren 31n jasotako zenbatekoekiko.

8. Honako pentsio publiko hauei ez zaie aplikatuko 2. apartatuan arautzen den igoera:

a) Estatuko 1989ko Aurrekontu Orokorren abenduaren 28ko 37/1988 Legeak 42. artikuluan aipatzen dituen aurreikuspeneko araubideen edo sistemen kontura ordaintzen diren pentsioak, baldin eta hileko zenbateko osoa (behar den kasuetan, titularrak eskuratutako beste pentsio publikoen hileko zenbateko osoari gehituta) gehiago bada errege lege-dekretu honen I. eranskinean ezartzen den pentsio publikoen hileko gehieneko kopurua baino.

Aurreko paragrafoan xedatzen dena ez zaie aplikatuko ekintza terroristek eragindako Estatuko Klase Pasiboen Araubideko eta Gizarte Segurantzako sistemako aparteko pentsioei, ez ekainaren 23ko 6/2006 Errege Lege Dekretuak (atentatu terroristek eragindako salbuespenezko pentsioei buruzkoa) ezartzen duenaren arabera onartzen diren pentsioei ere, eta abenduaren 30eko 62/2003 Legeak (zergen, administrazioaren eta lanaren arloetako neurriei buruzkoa) berrogeita hirugarren xedapen gehigarrian ezartzen duenaren arabera onartzen diren pentsioei ere ez.

b) Uztailaren 10eko 851/1992 Errege Dekretuak, terrorismo-ekintzen ondoriozko aparteko pentsio batzuk arautzen dituenak, II. tituluaren arautzen dituen pentsioak. Pentsio horiek beren legerian ezartzen denaren arabera egokituko dira.

c) Estatuko bidezainen alde 1985eko urtarrilaren 1a baino lehen sortutako Klase Pasiboen pentsioak; salbuespena: titularrek bidezain gisa soilik jasotzen dituzten pentsioak.

d) Zahartzaroko eta Elbarritasuneko Derrigorrezko Aseguru iraungiaren pentsioak, beste pentsio publiko batzuekin batera jasotzen badira, honako kasu honetan izan ezik: Gizarte Segurantzako sistemaren araubideetako alarguntasun-pentsioekin batera jasotzen direnean, edo pentsio hauetako batekin eta, gainera, alarguntzako beste edozein pentsio publikorekin batera. Hori dela eta, honako hauek ez dira aldi bereko pentsiotzat hartuko: martxoaren 18ko 3/2005 Legearen babesean aitortzen den prestazio ekonomikoa; Espainiako gerra zibilaren ondoriozko elbarri baliagarriek edo lehen graduko desgaituek jasotako pentsioa –legeria arautzailea gorabehera–; pertsona desgaituen eskubideei eta haiek gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testu bateginean –azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak onetsian– aurreikusten diren hirugarren pertsonaren laguntzagatiko sorospenak, eta terrorismo-ekintzen ondoriozko aparteko pentsioak ere ez.

Aurreko paragrafoan xedatzen dena gorabehera, aldi berean jasotzen diren pentsio guztiak (zenbatekoak handituta) eta Zahartzaroko eta Elbarritasuneko Derrigorrezko Aseguruarenak batuta sortzen den zenbatekoa aseguru horren 2020ko pentsiorako ezarritakoa baino gutxiago bada (kalkulurako, urteko kopuruak aplikatu behar dira), Zahartzaroko eta Elbarritasuneko Derrigorrezko Aseguruaren pentsioaren gehikuntzaren zenbatekoa aipatutako bi horien arteko diferentzia izango da. Diferentzia hori ez da kontsolidagarria, hau da, interesdunak jasotzen dituen zenbatekoei aplikatzen zaien edozein igoerak (balioak handituta gertatzen denak zein aldian behingo prestazio berriak onartuta gertatzen denak) irentsi ahal izango du.

e) Estatuko Funtzionario Zibilen Mutualitate Orokorren Funtz Berezia dauden mutualitateen pentsioak, 2020ko abenduaren 31rako 1973ko abenduaren 31ko zenbatekoetara iritsi direnak.

f) Uztailaren 3ko 6/2018 Legeak, Estatuko 2018ko Aurrekontu Orokorrenak, 40.Bi artikuluan aipatzen dituen mutualitateen, montepioen edo gizarte-aurreikuspeneko entitateen pentsioak.

9. Estatuko Funtzionario Zibilen Gizarte Segurantzari buruzko Legearen testu bategineko seigarren xedapen gehigarriko lehen apartatuan xedatzen denarekin bat etorriz (ekainaren 23ko 4/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori), murriztu egingo dira Estatuko Funtzionario Zibilen Mutualitate Orokorren Funtz Berezia dauden mutualitateen pentsioak, baldin eta 2014ko abenduaren 31z gero sortu badira, 2020ko urtarrilaren 1ean; hain zuzen ere, 2019ko abenduaren 31n jasotako zenbatekoari honako kopuru hau kenduko zaio: 1978ko abenduaren 31n jaso beharreko zenbatekoaren –edo, Erakunde Sindikaleko Funtzionarioen Montepioaren kasuan, 1977ko

abenduaren 31koaren– eta 1973ko abenduaren 31n jaso beharrekoaren arteko diferentziaren ehuneko 20.

10. Artikulu honetan xedatzen denari dagokionez, 2020an aplikatu behar diren pentsio eta prestazio publikoen zenbatekoak eta diru-sarrereren mugak eranskinen jasotakoak dira.

2. artikulua. *Pentsioen erosteko ahalmenari eustea.*

1. 2020an handitutako Gizarte Segurantzako sistemaren eta Klase Pasiboen pentsioak jasotzen dituztenek, 2021eko apirilaren 1a baino lehen, ordainketa bakarrean jasoko dute honako kopuru hau: 2020an jaso zuten pentsioaren eta 2019ko zenbatekoei 2019ko abendutik 2020ko azarora arteko KPIaren urte arteko portzentaje-igoeren batez besteko balioa aplikatuta legokiekeenaren arteko aldearen balioidea den zenbatekoa, betiere ateratzen den batez besteko balioa ehuneko 0,9 baino handiagoa bada.

Ondorio horietarako, 2020. urteko pentsio publikoaren muga honako hau izango da: 2019ko abenduaren 31n muga horren zenbatekoa aurreko paragrafoan adierazitako ehunekoan handitzearen balioidea.

Aurreko paragrafoan ezartzen dena Gizarte Segurantzako sistemaren eta Klase Pasiboen pentsiodunei ere aplikatuko zaie, 2020an sortutako pentsioak jaso dituztenei, baldin eta urte horretarako finkatutako pentsio publikoen gehieneko zenbatekoa jaso badute. Era berean, giza immunoeskasiaren birusa (GIB) duten pertsonen onartutako laguntzak eta martxoaren 18ko 3/2005 Legean ezartzen denaren itzalpean onartzen diren laguntzak jasotzen dituztenei ere aplikatuko zaie.

Aurreko arauak Klase Pasiboen pentsio hauei ere aplikatuko zaizkie: lehenengoz 2020an ordaindu direnei, baldin eta zenbatekoa zehazteko ekitaldi horretan eguneratu beharreko baliabide arautzaileak hartu baziren kontuan.

2. 2020an jarraian zehaztu diren pentsioetako bat jaso dutenek ordainketa bakarrean jasoko dute 2020an jasotako pentsioaren eta 2019ko zenbatekoei 2019ko abendutik 2020ko azarora arteko KPIaren urte arteko portzentaje-igoeren batez besteko balioa aplikatuta legokiekeenaren arteko aldearen pareko zenbatekoa, baldin eta ateratzen den batez besteko balioa ehuneko 0,9 baino handiagoa bada. Hona pentsioak: Gizarte Segurantzaren ordaindutakoaren araberrako gutxieneko pentsioak; Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruaren pentsioak, batera gertatzen ez direnean; Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruaren pentsioak eta Gizarte Segurantzako sistemaren araubide bateko alargun-pentsioak, batera gertatzen direnean; Gizarte Segurantzak nork bere kargura gutxienez hemezortzi urte eta ehuneko 65eko desgaitasuna dituen semea edo alaba edukitzeagatik ematen dituen prestazioak; mugikortasun-sorospena eta garraio-gastuen konpentsazioa.

3. Ondore ekonomikoak 2020an sortu dituzten Klase Pasiboen pentsioen hasierako zenbatekoa zehazteko, abenduaren 28ko 28/2018 Errege Lege Dekretuak I. tituluko II. kapituluaren tituluan ezartzen dituen balioak 1.2 artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritik handituko dira.

Xedapen gehigarri bakarra. *Eten egiten da urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 58. artikulua eta apirilaren 30eko 670/1987 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Estatuko Klase Pasiboen Legearen testu bateginaren 27. artikulua.*

2020an pentsioak errege lege-dekretu honetako 1. artikuluan ezartzen den bezala handituko dira, eta ez da aplikatuko Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategineko 58. artikuluan eta Estatuko Klase Pasiboen Legearen testu bategineko 27. artikuluan ezartzen dena.

Xedapen iragankor bakarra. *Arau honetan jasotako xedapenen ondorio ekonomikoak.*

Arau honetan jasotako pentsioen handitzeak eta gehikuntzak 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak.

Azken xedapenetako lehena. *Eskumen-titulua.*

Errege lege-dekretu hau Konstituzioaren 149.1.17 artikuluan ezarritakoaren babesean ematen da, artikulua horrek estatuari esleitzen baitio Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoaren gaineko eskumen eskusiboa.

Azken xedapenetako bigarrena. *Arauk emateko gaikuntza.*

Baimena ematen zaio Gizarteratze, Gizarte Segurantza eta Migrazioetako ministroari errege lege-dekretu hau garatzeko eta betearazteko beharrezkoak diren xedapen orokorrak eman ditzan.

Azken xedapenetako hirugarrena. *Indarrean jartzea.*

Errege lege-dekretu hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Madriren emana, 2020ko urtarrilaren 14an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN

ERANSKINA

2020an aplikatuko diren pentsio eta prestazio publikoen zenbatekoak

I. Gutxienekoetara heltzeko osagarriak

1. Gizarte Segurantzaren Sistemako kotizaziopeko pentsioen 2020ko gutxieneko zenbatekoak:

Pentsio mota	Titularrak		
	Ardurapeko ezkontidea - Euro urtean	Ezkontiderik gabea: Pertsona bakarreko unitate ekonomikoa - Euro urtean	Ardurapeko ezkontiderik ez - Euro urtean
<i>Erretiroa</i>			
Titularrak hirurogeita bost urte eginda.	11.807,60	9.569,00	9.081,80
Titularra hirurogeita bost urtetik beherakoa.	11.069,80	8.953,00	8.461,60
Titularrak hirurogeita bost urte eginda; baliaezintasun handia.	17.711,40	14.354,20	13.623,40
<i>Ezintasun iraunkorra</i>			
Baliaezintasun handia.	17.711,40	14.354,20	13.623,40
Absolutua.	11.807,60	9.569,00	9.081,80
Osoa: Titularrak hirurogeita bost urte eginda.	11.807,60	9.569,00	9.081,80
Osoa: Titularra hirurogei urtetik hirurogeita lau urtera bitartekoa.	11.069,80	8.953,00	8.461,60
Osoa: gaixotasun arruntaren ondoriozkoa; titularra 60 urtetik beherakoa.	7.054,60	7.054,60	6.993,00
Partziala, lan-istripuen araubidekoa: Titularrak hirurogeita bost urte eginda.	11.807,60	9.569,00	9.081,80
<i>Alarguntasuna</i>			
Titularrak familia-zamak dauzka.	—	11.069,80	—
Titularrak hirurogeita bost urte eginda dauzka edo % 65eko desgaitasuna edo handiagoa dauka.	—	9.569,00	—
Titularra hirurogei urtetik hirurogeita lau urtera bitartekoa.	—	8.953,00	—
Titularra hirurogei urtetik beherakoa.	—	7.249,20	—

Pentsio mota	Euro urtean
<i>Zurztasuna</i>	
Onuradun bakoitzeko.	2.924,60
Ehuneko 65eko desgaitasuna edo handiagoa daukan 18 urtetik beherako onuradun bakoitzeko	5.754,00
Zurztasun absolutuan, urteko gutxieneko kopurua 7.249,20 euro izango da; behar den kasuetan onuradunen artean banatuko da.	
<i>Zurztasun-prestazioa</i>	
Onuradun bat.	8.820,00
Zenbait onuradun: onuradunen artean banatzeko 100.	14.868,00

Pentsio mota	Euro urtean
<i>Senideen alde</i>	
Onuradun bakoitzeko.	2.924,60
Alargun edo umezurtz pentsiodunik ez badago:	
Hirurogeita bost urte eginak dituen onuradun bakarra.	7.067,20
Hirurogeita bost urtetik beherako onuradun bakarra.	6.661,20
Hainbat onuradun: Bakoitzari esleitutako urteko gutxieneko kopuruari 4.324,60 euroko zenbatekoa onuradunen kopuruaren artean hainbanatuta ateratzen den zenbatekoa gehituko zaio.	

Diru-sarrereren mugak, gutxienekoengatik ematen diren osagarri ekonomikoak onartzeko:

– 2020an:

- Ardurapeko ezkontiderik ez: 7.638,00 euro urtean.
- Ardurapeko ezkontidea: 8.909,00 euro urtean.

2. Klase Pasiboen pentsioen 2020ko gutxieneko zenbatekoak:

Pentsio mota	Zenbatekoa		
	Ardurapeko ezkontidea – Euro urtean	Ezkontiderik ez: pertsone bakarreko unitate ekonomikoa – Euro urtean	Ardurapeko ezkontiderik ez – Euro urtean
Erretiro-pentsioa.	11.807,60	9.569,00	9.081,80
Alargun-pentsioa.		9.569,00	
Alargun-pentsioa ez den pentsio familiarra, N pentsioaren edo pentsioen onuradunen kopurua izanik*.		<u>9.328,20</u> N	

* Hainbat onuradun egonez gero, bakoitzaren pentsioa kalkulatzeko, zenbatekoa hartzaileen kopuruaz zatitu behar da. Edonola ere, onuradun bakoitzaren gutxienekoa 208,90 euro hilean izan behar da, edo 411,00 euro hilean, ehuneko 65eko desgaitasuna edo handiagoa daukan 18 urtetik beherako umezurtza bada.

Diru-sarrereren mugak, gutxienekoetara heltzeko osagarri ekonomikoak onartzeko:

– 2020an: 7.638,00 euro urtean.

II. Beste pentsio eta prestazio publiko batzuen zenbatekoak

1. Pentsio publikoa, gehienez: 2.683,34 euro hilean edo 37.566,76 euro urtean.
2. Jada iraungita dagoen Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruko pentsioak:

– Beste batzuekin batera ematen ez diren Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruaren pentsioak: 6.127,80 euro urtean.

– Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruaren pentsioak, Gizarte Segurantzako sistemaren araubideetako alarguntasun-pentsioekin batera jasotzen direnean, edo pentsio hauetako batekin eta, gainera, alarguntzako beste edozein pentsio publikorekin batera: 5.947,20 euro urtean.

3. Gizarte Segurantzako pentsioak, kotizazio gabeko modalitatean: 5.538,40 euro urtean.

– Etxebizitza alokatzeko pentsioaren osagarria: 525 euro urtean.

4. Gizarte Segurantzako familia-prestazioak.

– Desgaitasunik ez daukan ardurapeko seme edo alaba edo adingabe bakoitzeko diru-esleipena: 341 euro urtean.

Aurrekoa alde batera utzi gabe, esleipen ekonomikoaren urteko zenbatekoa 588 eurokoa izango da, diru-sarrerak honako eskala honetan azaltzen den muga baino txikiagoak izanez gero:

H = Onuradunek zaintzapean dituzten 18 urtetik beherako seme-alabak.

N = Etxeko 14 urtetik beherako adingabeak.

M = Etxeko 14 urte edo hortik gorako pertsonak.

Etxeko kideak		Diru-sarreraren tartea	Urteko esleipen garbia
14 urte edo hortik gorako pertsonak (M)	14 urtetik beherako pertsonak (N)		
1	1	4.723,00 edo gutxiago	588 x H
1	2	5.812,00 edo gutxiago	588 x H
1	3	6.902,00 edo gutxiago	588 x H
2	1	6.539,00 edo gutxiago	588 x H
2	2	7.629,00 edo gutxiago	588 x H
2	3	8.718,00 edo gutxiago	588 x H
3	1	8.355,00 edo gutxiago	588 x H
3	2	9.445,00 edo gutxiago	588 x H
3	3	10.534,00 edo gutxiago	588 x H
M	N	$3.633,00 + [(3.633,00 \times 0,5 \times (M-1)) + (3.633,00 \times 0,3 \times N)]$ edo gutxiago	588 x H

– Ehuneko 33ko desgaitasuna edo handiagoa daukan seme edo alaba edo adingabe bakoitzeko diru-esleipena: 1.000,00 euro urtean.

– Desgaitasuna daukan ardurapeko 18 urtetik gorako seme edo alaba bakoitzeko diru-esleipena:

- Ehuneko 65eko desgaitasuna edo handiagoa: 4.747,20 euro urtean.
- Ehuneko 75eko desgaitasuna edo handiagoa badu eta beste pertsona baten laguntza behar badu bizitzaren funtsezko ekintzak egiteko: 7.120,80 euro urtean.

– Semea edo alaba jaio edo adoptatzeagatik familia ugariei, guraso bakarreko familiei edo desgaitasuna daukaten amei ematen zaien prestazioa (Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina, 357. artikulua); zenbatekoa testu bereko 358. artikuluan ezartzen da: 1.000,00 euro.

– Diru-sarreraren muga, ardurapeko seme edo alabagatik edo adingabeagatik prestazioa jasotzeko eskubidea onartzeko:

- Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategineko 352.1.c) artikuluko lehen paragrafoan aipatzen den zenbatekoa (desgaitasunik ez daukan ardurapeko semea edo alaba edo adingabea): 12.424,00 euro urtean.

- Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategineko 352.1.c) artikuluko bigarren paragrafoan aipatzen den zenbatekoa (familia ugaria): 18.699,00 euro urtean; 3.029,00 euro gehituko dira ardurapeko seme edo alaba bakoitzeko, laugarrenetik aurrera, laugarrena ere barne.

5. Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateginean ezarritako sorospen ekonomikoak (azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak onartzen ditu):

- Gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko sorospena: 149,86 euro hilean.
- Hirugarren pertsona laguntzeagatiko sorospena: 58,45 euro hilean.
- Mugikortasun-sorospena eta garraio-gastuen konpentsazioa: 68,10 euro hilean.

6. Uztailaren 21eko 45/1960 Legean eta uztailaren 24ko 2620/1981 Errege Dekretuan ezartzen diren laguntzako pentsioak: 149,86 euro hilean.

7. Martxoaren 18ko 3/2005 Legeak ezartzen duen prestazio ekonomikoaren zenbatekoa: 7.507,83 euro urtean.

8. Maiatzaren 28ko 9/1993 Errege Lege Dekretuaren babespean GIBdunei onartzen zaizkien gizarte-laguntzen zenbatekoa: 639,33 euro hilean.

III. 2020an Klase Pasiboen pentsioak kalkulatzeko kontuan hartuko diren kopuruak eta aplikatuko diren gerra ondoriozko pentsio berezien zenbatekoak

1. Estatuko Klase Pasiboen Araubideko pentsioen hasierako zehaztapenerako kontuan hartuko diren kopuruak.

a) Estatuko Klase Pasiboen Legearen testu bateginaren I. tituluan aipatzen diren pentsioen hasierako zehaztapenerako kontuan hartuko diren kopuruak.

– 1985eko urtarrilaren 1etik aurrera, kidego, eskala, lanpostu, enplegu edo administrazio-kategoriaren batean dauden langileen pentsioak kalkulatzeko kontuan hartuko diren kopuruak:

EPOE taldea/azpitaldea	Kopurua – Euro urtean
A1	42.184,02
A2	33.199,88
B	29.071,88
C1	25.498,08
C2	20.173,20
E (30/84 Legea) eta profesionalen multzoak (EPOE)	17.199,27

– – 1985eko urtarrilaren 1a baino lehen sartutako langileen pentsioak kalkulatzeko kontuan hartuko diren kopuruak:

ESTATUKO ADMINISTRAZIO ZIBIL ETA MILITARRA

Proporzionaltasun-indizea	Kopurua - Euro urtean
10	42.184,02
8	33.199,88
6	25.498,08
4	20.173,20
3	17.199,27

JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA

Indize biderkatzailea	Kopurua - Euro urtean
4,75	42.184,02
4,50	42.184,02
4,00	42.184,02
3,50	42.184,02
3,25	42.184,02
3,00	42.184,02
2,50	42.184,02
2,25	33.199,88
2,00	29.071,88
1,50	20.173,20
1,25	17.199,27

KONSTITUZIO AUZITEGIA

Kidegoa	Kopurua - Euro urtean
Idazkari nagusia.	42.184,02
Legelariak.	42.184,02
Gerentea.	42.184,02

GORTE NAGUSIAK

Kidegoa	Kopurua - Euro urtean
Legelariak.	42.184,02
Artxibozain-liburuzainak.	42.184,02

Kidegoa	Kopurua - Euro urtean
Goi-mailako aholkulariak.	42.184,02
Erredaktoreak, takigrafoak eta estenotipistak.	42.184,02
Teknikari-administrariak.	42.184,02
Administrariak.	25.498,08
Atezainak.	20.173,20

b) Estatuko Klase Pasiboen Legearen testu bategineko II. tituluari aipatzen diren pentsioen hasierako zehaztapenerako kontuan hartuko diren kopuruak.

Kopuruak

ESTATUKO ADMINISTRAZIO ZIBIL ETA MILITARRA

Proporzionaltasun-indizea	Maila	Maila berezia	Soldata eta graduko kontzeptuagatiko zenbatekoa urtean, eurotan
10 (5,5)	8	–	28.279,11
10 (5,5)	7	–	27.501,91
10 (5,5)	6	–	26.724,74
10 (5,5)	3	–	24.393,12
10	5	–	23.996,29
10	4	–	23.219,14
10	3	–	22.441,95
10	2	–	21.664,69
10	1	–	20.887,50
8	6	–	20.179,01
8	5	–	19.557,39
8	4	–	18.935,71
8	3	–	18.314,05
8	2	–	17.692,42
8	1	–	17.070,75
6	5	–	15.372,71
6	4	–	14.906,60
6	3	–	14.440,58
6	2	–	13.974,44
6	1	(ehuneko 12)	15.073,41
6	1	–	13.508,33
4	3	–	11.375,06
4	2	(ehuneko 24)	13.573,25

Proporzionaltasun-indizea	Maila	Maila berezia	Soldata eta graduko kontzeptuagatiko zenbatekoa urtean, eurotan
4	2	–	11.064,25
4	1	(ehuneko 12)	12.009,07
4	1	–	10.753,42
3	3	–	9.821,58
3	2	–	9.588,50
3	1	–	9.355,46

JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA

Indize biderkatzailea	Soldata kontzeptuaren arabera zenbatekoa urtean, eurotan
4,75	46.180,60
4,50	43.750,04
4,00	38.888,89
3,50	34.027,78
3,25	31.597,25
3,00	29.166,68
2,50	24.305,56
2,25	21.875,00
2,00	19.444,46
1,50	14.583,34
1,25	12.152,79

KONSTITUZIO AUZITEGIA

Kidegoa	Soldata kontzeptuaren arabera zenbatekoa urtean, eurotan
Idazkari nagusia.	43.750,04
Legelariak.	38.888,89
Gerentea.	38.888,89

GORTE NAGUSIAK

Kidegoa	Soldata kontzeptuaren arabera zenbatekoa, urtean, eurotan
Legelariak.	25.450,40
Artxibozain-liburuzainak.	25.450,40
Goi-mailako aholkulariak.	25.450,40

Kidegoa	Soldata kontzeptuaren araberako zenbatekoa, urtean, eurotan
Erredaktoreak, takigrafoak eta estenotipistak.	23.371,45
Teknikari-administrariak.	23.371,45
Administrariak.	14.075,12
Atezainak.	11.133,58

Hirurtekoak

ESTATUKO ADMINISTRAZIO ZIBIL ETA MILITARRA

Proporzionaltasun-indizea	Hirurtekoaren unitate-balioa urtean, eurotan
10	913,55
8	730,86
6	548,09
4	365,44
3	274,07

JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA

Indize biderkatzailea	Hirurtekoaren unitate-balioa urtean, eurotan
3,50	1.701,39
3,25	1.579,87
3,00	1.458,34
2,50	1.215,25
2,25	1.095,25
2,00	972,24
1,50	729,17
1,25	607,66

KONSTITUZIO AUZITEGIA

Kidegoa	Hirurtekoaren unitate-balioa urtean, eurotan
Idazkari nagusia.	1.701,39
Legelariak.	1.701,39
Gerentea.	1.701,39

GORTE NAGUSIAK

Kidegoa	Hirurtekoaren unitate-balioa urtean, eurotan
Legelariak.	1.040,62
Artxibozain-liburuzainak.	1.040,62
Goi-mailako aholkulariak.	1.040,62
Erredaktoreak, takigrafoak eta estenotipistak.	1.040,62
Teknikari-administrariak.	1.040,62
Administrariak.	624,38
Atezainak.	416,23

2. Gerraren ondoriozko pentsio berezien hasierako zehaztapenerako kontuan hartuko diren kopuruak.

Mota	Zenbatekoa, 12 hilabetekoa
35/1980 Legearen babespean onartzen den mutilazio-pentsioa.	5.212,64 euro
Oinarrizko ordainsarien batura, hirurtekoen ordezkia eta jaso ez diren lansariak konpentsatzeko gehigarria (35/1980 Legea).	14.058,35 euro
6/1982 Legearen babespean onartzen den oinarrizko ordainsaria.	9.840,84 euro
670/1976 Dekretuaren babespean onartzen diren pentsioak.	6.245,40 euro

Irailaren 18ko 5/1979 Legearen eta ekainaren 26ko 35/1980 Legearen babespean onartzen diren langile ez-funtzionarioek eragiten duten desgaitasunik gabeko umezurtzen aldeko zurtasun-pentsioen zenbatekoa 1.916,40 eurokoa izango da urtean, hamabi hilabeteri lotua.